

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

3610

AGINDUA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita Industrialak ez diren Eraikinetako Suteen Aurkako Babes Instalazioen Egiaztagiri-eredua.

Suteen Aurkako Babes Instalazioei buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuak (1993-12-14ko BOE) ezarri eta definitzen du nolako baldintzak bete behar dituzten suteen aurka babesteko erabiltzen diren tresna, ekipamendu eta sistemek eta haien instalazioak eta mantentzeak.

Industria-instalazioak jardunean jartzeko prozedura errazteko erregimena aplikatzean hartutako esperientziak erakusten duenez, beharrezkoa da argitzea zein diren dokumentu egokienak industrialak ez diren eraikinetan suteen aurkako babes-instalazioak jardunean jartzearen inguruko izapideak egiteko (urriaren 30eko 229/2012 Dekretuaren bidez arautu zen Industria-instalazioak jardunean jartzeko prozedura errazteko erregimena).

Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legearen 12. artikuluekin bat etorritik, egiaztagiriaren helburua da ziurtatzea instalazioek arauak betetzen dituztela. Horren haritik, beraz, egiaztagiri egoki batek araudiari buruzko alderdiak bildu beharko lituzke, eta araudia betetzen dela ziurtatu. Alde horretatik, egiaztagiri-eredu orientagarrian bildutako edukia jaso beharko luke egiaztagiri egoki horrek.

Bestalde, «Eraikuntzaren Kode Tekniko»ari dagokionez, eta, zehazki, DB-SI-4 Oinarrizko Dokumentua aintzat hartuta, arlo honetan eskumena duten agintaritzen, hau da, EAEko udalen eta Eusko Jaurlaritzaren, parte-hartzeak bermatu egin behar du arauak ez direla sobera ugarituko, ezta bikoiztuko ere, eta prozedura batean hainbat agintaritzek jarduteak ez duela ekarriko agintaritzak bakar batek parte hartuta baino administrazio-karga handiagorik operatzailearentzat, betiere Merkatu Batasunari buruzko abenduaren 9ko 20/2013, Legean jasotako «Kargak arintzeko printzipio»arekin bat etorritik.

Halaber, zehaztu beharra dago, DB-SI-4 Oinarrizko Dokumentuak 1.1 paragrafoan adierazten duenari jarraituz, ezinbestean aurkeztu beharra dagoela, instalazioak jardunean jarri ahal izateko, azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuaren 18. artikuluan aipatzen den enpresa instalatzailearen ziurtagiria, autonomia erkidegoko organo eskudunaren aurrean aurkeztu ere.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, adierazitako guztia aintzat hartuta, Industrialak ez diren Eraikinetan Suteen Aurkako Babes Instalazioak jardunean jartzeko izapidetze egokia ezartze aldera, eta urriaren 30eko 229/2012 Dekretua betetz, agindu hau onartu du, helburu hartuta Industrialak ez diren Eraikinetako Suteen Aurkako Babes Instalazioen Egiaztagiri-eredua onartzea.

Bestelako ziurtatze-erak baztertu gabe, Industrialak ez diren Eraikinetako Suteen Aurkako Babes Instalazioen Egiaztagiria, horretarako gaitutako enpresa batek aurkeztua, nahiko izango da egiaztatzeko azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuan ezarritako arauak betetzen direla (egiaztagiri-eredua ebazpen honen eranskinean dago).

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 3. artikulua ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Onartzea Industrialak ez diren Eraikinetako Suteen Aurkako Babes Instalazioen Egiaztagiri-eredua. Agindu honen eranskinean dago jasota.

Egiaztagiri-eredua web gune honetan egongo da eskuragarri: <http://www.euskadi.net>.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari, bi hilabeteko epean, agindua EHAA-n argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 30a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

**INDUSTRIALAK EZ DIREN ERAIKINEN SUTEEN AURKAKO
BABESERAKO INSTALAZIOAREN EGIAZTAGIRIA**

jaun/andreak,

ENPRESA INSTALATZAILEAREN teknikoak

NAN:

Tel.:

emaila:

EGIAZTATZEN DU:**1.-** Jarraian azaltzen diren ezaugarriak dituen instalazioa:

Titularra:	IFK:
Herria:	Kalea: Zk.:
Tel.:	Emaila:

INSTALAZIOAREN XEHETASUNAK

Herria:	Kalea:	Zk.:
Iharduera :		
Establezimenduaren izena:		
Eraikitako azalera:	m ²	
Suteak detektatzeko sistema automatikoak.		☐
Eskuzko sute alarma sistemak.		☐
Alarma jakinarazpen sistemak.		☐
Suteen aurkako ura hornitzeko sistemak.		☐
Kanpo ur-paldo sistemak.		☐
Su-itxalgailuak.		☐
Suteetako ur hartune sistema hornituak.		☐
Tutu lehorreko sistemak.		☐
Ihinztagailu sistema automatikoak.		☐
Ur lainoztatze sistemak.		☐
Espantsio txikiko apar fisikozko sistemak.		☐
Hauts bidezko itzaltze sistemak.		☐
Gas-itxaltzaile bidezko itzaltze sistemak.		☐
ENPRESA INSTALATZAILEA:	Zk.:	

Aurkeztutako ziurtagiriaren arabera burutu dela (honekin doaz memoria* eta eskala egokian egindako planoak**), sinatzen duen teknikoaren zuzendaritzaren ardurapean, eta(e)an amaitu dela.

- 2.-** Instalazioak dagozkion eta indarrean dauden araudi edota arauak betetzen dituela eta batez ere: /1942/1993 Errege Dekretua, azaroaren 5ekoa (EAO 1993-12-14), instalazioak suteen aurka babesteko Arautegia onartzen duena.
- 3.-** Beharrezkoak diren edota araudiz ezarritako egiaztapen eta frogak, emaitza onesgarritz, gauzatu direla.
- 4.-** Ohar edota aldaketak:

* Honako hauek adieraziko dira: zein den instalazioaren enpresa titularra, zein den enpresa instalatzailea, zer esparru babestu behar den eraikin ez-industrialen edo haren eremuan, eta noraino iristen den abian jarriko den SABI; horrek babesten duen azalera m²-tan eta non dagoen. 1942/1993 E.D.ri buruzko araudia betetzen dela justifikatuko da. Instalazioen dimentsionamenduan eginiko kalkuluak sartuko dira, behar denean.

** Babestu beharreko eraikin ez-industrialaren edo haren eremuaren kokapen planoak: inguruan kokatzea.

Eremuaren kokapen planoak eraikinean: eraikinaren oinplanoan kokatzea.

SABiko instalazioen ezaugarrien planoak: eginiko instalazioen oinplanoa eta altxaera planoak ekipoak kokatzeko eta araudizko distantziak egiaztatu ahal izateko, babestu beharreko esparruak zehazki adieraziz.

Erregistratzailearen gunea

Data

Instalazio enpresako eskudun
tituladun teknikoaren sinadura

Enpresaren zigilua